

Ur mara museoa

Eskoletarako arte tailerrak 2021-2022

- ✓ Papergintza tailerra
- ✓ Esku tailerra
- ✓ Beirate tailerra
- ✓ Eskultura tailerra
- ✓ Graffitiak basoan
- ✓ Ehungintza tailerra
- ✓ eta beste.

- **Iraupena:** 4h
- **Kokalekua:** Ur mara museoan. Alkiza
- **Baldintzak:** mendian ibiltzeko jantzi aproposak beharrezkoak izango dira, baita mendiko botak ere. Jarduera aire librean gauzatuko da, eguraldiaren baldintzen arabera izango da.
- **Egokitzapenak:** mugikortasun zailtasunak dituzten ikasleak izanez gero, kontaktuan jarri eta proposamena aurrera eramateko egokitzapen baliabideak ditugu.
- **Baliabideak:** jarduerarako behar diren baliabide guztiak Ur mara museoak hornituko ditu.
- **Kontaktua** Koldobika Jauregi 609 465 942
- **E-posta** mail@urmara.com
- **Lantzen dituen arlo artistikoak:**
Ondare eta arte plastikoa
- **Zein eskola-ikasgairekin duen harremana:**
Gizarte zientziak, natur zientziak eta plastika
- **Zein balio sustatzen ditu**
Garapen jasangarria, lankidetzak, enpatia, naturarekin lotura, inklusioa, eta genero berdintasuna
- **Zein ikas mailari edo adinari zuzentzen zaio:**
Guztiak
- **Zenbat ikaslek parte har dezakete ekitaldi baten:**
Gela bat

PROPOSAMENAREN EGILEAREN IBILBIDE PROFESIONALA

2010ean Ur mara autore museoa sortzen da, bertan, Elena Cajaraville eta Koldobika Jauregiren artelanetatik gain, artista hauen eta beste askoren hausnarketen sorgune bilakatu da: ekologia, etnografia, natura, filosofia, poesia eta hezkuntzaren, elkar trukaketaren gune bat sortuz.

Gai ezberdin hauen topaketa eta ezagutzak, askatasunean oinarritzen den esperimentazioa areagotu du. Ur mara arte eta hizkuntza prozesu ezberdinen bultzatzaile da.

Koldobika Jauregi artista disziplina aunitzekoa da, 40 urte baino gehiagoko ibilbidea du artearen munduan, bere obra museo garrantzitsuetan topa dezakegu, hala nola Guggenheim museoan, Bilbon.

Koldobika, hasieratik haurren hezkuntzan interes handia erakutsi zuen, bere tailerretan Montessori metodoa eta Arno Stern lan hartzen du oinarritzat, ikasleen ikasketa eta sorkuntza prozesuak erdigunean jarriz.

PAPERGINTZA TAILLERRA

Ikasleak, paperak artean izan duen garrantziaz ohartu daitezten, 5000 urtetan zehar bere

jatorria eta garapena azalduko duen hiru minutuko bideo bat proiektatuko da, material honen hedapena eta erabileraren berrikuspen bat eginik.

Museoko landare papiriferoen ezaugarri eta berezitasunak ezagutuko dituzte bisita gidatuan, eta paper artisauaren produkzioa ulertzeaz gain, teoria praktikara eramateko aukera izango dute. Hau da, landaretik hasita prozesu eta sorkuntza artistikoan baliatzen den produktura arte dagoen prozedura guztiaren lekuko izango dira, paper mota ezberdinekin

esperimentatzeko aukera izango dutelarik.

Horrela, disziplina ezberdinetako gaiak landuko ditugu, landare bat osatzen duten zatiak, produkzio eta ekonomia jasangarri baten beharra, gizakiak naturarekin duen harremana eta sorkuntza artistikoa, ikasleen parte-hartze aktiboa beharrezkoa izanik.



JARDUEREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA

Ekintza parte-hartzaile, praktiko eta arin hauekin, ikasleek paperaren historiaren bidez, material honek artearen historia nola baldintzatu eta eraldatu duen ikus dezakete. Gizakia eta ingurumenaren arteko harremana ardatz izanik, kontzientzia ekologiko bat garatzearen alde egingo da, naturako baliabideen erabilera jasangarria bultzatuz.

Hortaz gain eta euskarri eta materialaren izateaz kontziente izanik, tailerlean era kolektibo

zein indibidualean paper mota ezberdinekin esperimentatzeko eta lan egiteko aukera izango dute, haien alde artistikoena garatuz. Jarduera hauen oinarrian taldearen arteko komunikazioa, esperientzia bidezko ikaste-prozesua, berdintasuna eta naturarekiko errespetua daude, talde-lanaren bidez, ingurumena ezagutu eta itxuraldatu beharko baitute.



JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOA

Museoan gauzatuko diren ekintza hauen helburu pedagogikoa sortze prozesu kolektibo batean norbanakoak duen arduratik abiatuta, taldean bere lekua hartuz, berdinen arteko komunikazioaren bidez lan egitea da. Esperientzia artisau eta artistiko bat bizitzea, non guztiek parte hartuko duten inguru naturala ezagutzuz eta

honekin lan eginik.

Ildo beretik eta esan bezala, natura ezagutzeko era jasangarri eta orekatsu bat sustatuko da, ikasleek izango dutelarik hau errespetuz ezagutu eta miatzeko ardura.

Gainera, hizkuntza artistikoaren bidez, harremanak sortzeko eta komunikatzeko era berri batekin jolastu dezakete, inklusibotasunetik eraikiko dena. Azken honi berebiziko garrantzia ematen diogu Ur mara museoan, eta horregatik, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen gara une oro.

Prezioa: 150€ gehi BEZ

ESKU TAILERRA



Tailerra bideo labur batekin hasten da, ikasleek zer egingo duten ikusteko eta azalpen motz bat jaso dezaten. Ondoren, tailer praktikoa hasten da, eta ariketa hauen bidez, gazteek haien eskuen arrastoak egingo dituzte, historiaurretik egiten den praktika eta adierazpen kultural modernoagoei ere dagokien hutsunearen teknikaz jabetuko dira.

Ekintza praktikoa hauen bidez ikasteko beste era arinago eta parte hartzaileago bat proposatzeaz gain, ikasgai ezberdinetako gaitasun eta edukiak lantzeko aukera aparta da.

JARDUERAREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA

Arrastoak uztea giza adierazpen zaharrenetarikoa da, naturan giza borondaterik gabe ere gertatu izan dena, eta urteetan zehar atzera egiteko aukera ematen digun ikergaia. Jarduera honekin hizkuntza artistiko bat garatu, teknika ezberdinak probatu eta arrasto batzkoitzak eskaintzen digun informazio ezberdinaz eta nortasunaz ohartzeko aukera ematen die ikasleei. Horregatik, ariketa honen bidez ikasleek irudimena eta gaitasun artistikoak garatuko dituzte komunikazioa eta kooperazioaren bidez.

JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOA



Esperientziaren eta lan autonomo zein talde lanaren bidez jarduera artistiko dibertigarri eta atsegin bat bizitzeaz gain, beste materia batzuetako gaiak landu eta eskultura tradizioko eta giza adierazpen zein arrastoen inguruko gogoetara bideratuko da tailer hau. Ariketa hauen oinarrian parte hartzea eta lankidetzak daudenez, arreta handia

jartzen diogu berdintasunari eta inklusibotasunari. Horregatik, museotik guztizko politika inklusiboa jarraitzen dugu, bai ibilaldietan zehar eta baita tailerretan ere, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen baikara. Honekin batera, generoen arteko desparekotasunaz jabetza osoa dugu eta arretaz begiratzen ditugu horrelako egoerak.

Bestetik, museotik bultzatzen ditugun balioekin bat eginik, naturarekiko errespetuzko jarrera kritiko eta jasangarri bat izatera bultzatzen ditugu ikasleak.

Prezioa: 200€ gehi BEZ

BEIRATE TAILERRA



Tailerra hiru minutuko bideo batekin hasiko da, beirateen historia azalduko duena, erabilerak, teknikak ... Honek ostean datorren jarduera testuinguruan jartzeko balio du. Bideoa ikusi ondoren, alde praktikoena hasten da, non gazteek haien beirate propioak egingo dituzten elkarlanean eta materialak berrerabiliz, museoaren balioak jarraituz. Zati honetarako, haien irudimena landu beharko dute, eta diseinu ezberdinak sortuko dituzte, norberaren eta taldearen izaeraren eta ariketa ulertzeko eraren arabera.

Jarduera honekin, argia eta koloreen inguruko edukiak barneratzeko aukera izango dute.

JARDUEREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA

Beirateek argi eta kolore joko ikusgarriak sortu ditzakete, eta horren bidez ikasleen atentzioa eta jakin-mina pizten dira. Talde lanean aritzeaz gain, alde artistikoa jorratuz, beirateak sortuko dituzte material berrerabiliekin.

Jarduera honen bidez, hainbat eduki zientifiko ulertu eta ikasiko dituzte, zientziara eta naturara hurbiltzeko beste era bat proposatuz. Hortaz gain, artisaugintzarako eta tradizio artistikoarekiko grina sustatzen da.

JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOARI BURUZKO TXOSTENA



Esperientziaren eta lan autonomo zein talde lanaren bidez jarduera artistiko dibertigarri eta atsegin bat bizitzeaz gain, eduki zientifikoak barneratuko dituzte. Ohiko metodologiatik at, artearen bidez ikasiko dute.

Prozesuan beharrezkoak izango dira parte hartzea eta lankidetzak. Horregatik, tentu berezia izango dugu ikasle guztiak eroso sentitu daitezen, eta inklusibotasunetik eta berdintasunetik lan egingo dugu. Aipatzekoa da, museotik guztizko politika inklusiboa jarraitzen dugula. Bai ibilaldietan zehar eta baita tailerretan ere, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen gara. Honekin batera, generoen arteko desperekotasunaz jabetza osoa dugu eta arretaz begiratzen ditugu horrelako egoerak.

Prezioa: 175€ gehi BEZ

ESKULTURA TAILERRA



helaraziz. Hortaz gain, jarduera honen muinean dauden beste ideia batzuk ere jorratuko dituzte; besteak beste, sormena eta elkarlana.



JARDUEREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA Eskultura bat egitea hirugarren dimentsioa lantzea da, irudiak sortu eta ulertzeko beste era bat. Jarduera honen bidez, askotan lantzen ez den espazioa eta bolumenean aritzeko aukera izango dute. Gainera, ariketa hauek era kolektiboan gauzatu daitezkeenez, gazteek hizkuntza artistiko batez komunikatzeko bidea aurkitu beharko dute, haien artean komuna dena.

Bestalde, aipatu bezala naturarekiko errespetuzko jarrera bat ereiteko, natura inspirazio iturri izateaz gain, eskulturaren parte izan daiteke materialaren bidez, edota objektu-artistikoaren kokaleku izanda, bien arteko harreman dialektiko bat ezarriz. Horregatik izango da beharrezkoa materialen berrerabiltzea.

JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOARI BURUZKO TXOSTENA

Esperientzia eta lan autonomo zein talde lanaren bidez ariketa praktikoa honetan gai ezberdinetako edukiak barneratuko dituzte. Ariketa hauetan museoaren printzipioei jarraituz, material berrerabiltzetaz baliatuko dira, naturarekiko harreman orekatsu eta jasangarri bat bultzatzeko.

Metodologia berri honekin ikasleen jakinmina eta motibazioa handituko da, eta funtsezkoak izango dira parte hartzea, lankidetzeta eta haien arteko komunikazioa. Horregatik, tentu berezia izango dugu ikasle guztiak eroso sentitu daitezen, eta inklusibotasunetik eta berdintasunetik lan egingo dugu. Aipatzekoa da, museotik guztizko politika inklusiboa jarraitzen dugula. Bai ibilaldietan zehar eta baita tailerretan ere, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen gara. Honekin batera, generoen arteko desparekotasunaz jabetza osoa dugu eta arretaz begiratzen ditugu horrelako egoerak.

Prezioa: 175€ gehi BEZ

GRAFFITIAK BASOAN



Ur mara museoko basoetatik zehar gure herriko iraganari begirada. Historia eta artea batuz lankidetzaz eta naturarekin lotura bultzatzen dituen goiz pasa izango da. Historia aztertzekeo modu berritzailea gazteek parte hartzeraz gonbidatuz, interes gehiago sustatzeko helburuz. Goizaren hasieran, ikasleak museora heldu ondoren 3 minutuko bideo labur bat proiektatuko da ikatza eta karearen garai bateko ustiapena erakutsiz.

Honen ondoren bigarren geltokia Ur mara museoa baitan kokatua dagoen harrobia izango da. Bertan gure arbasoen aztarnak aztertu eta hauek erabilitako tresnak ikusteko aukera izango dute. Ibilaldiarekin jarraituz harrobiaren ondoan dagoen karobia ikusiko dugu. Hemen, harrobi bertatik ateratako harriak maneiatzen ziren kare bihurtuz. Karearen erabilerari buruzko azalpen bat izango da, gure arbasoen erabileratik gaur egun arte, ondare artistikoa ere aipatuz.

Ibilaldi laburraren ondoren basoan kokatutako espazio berezi batean geratuko gara. Hemen ikatza, karea eta bestelako pigmentu batzuk prestatuta egongo dira. Ikasleak talde desberdinetan banatuz materialak emango zaizkie. Orain beraien txanda izango da gure arbasoen antzera materialak euren eskuz sentitzeko. Proposatutako jardueraz "grafika efimeroak" izango dira. Hau da, basoan zehar material organikoak erabiliz interbentzio artistiko aske bat egiteko aukera izango dute.

JARDUERAREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA

Grafika efimera bat sortzea, karea, ikatza eta pigmentuak bezalako elementu naturalak erabiliz.

Material horien lorpenaren eta historian zehar izan duten erabileraren deskribapen laburra, artean eta beste arlo batzuetan.

Jardueraz mota honek historia kontatu eta gazteen errealitatez hurbiltzeko modu berri bat bilatzen du. Hasierako bideo eta ibilbidea modu dinamiko eta motzean egiteko prestatua dago, ibilbidean zehar bisitariei ingurunea aztertzekeo askatasuna emanez, dinamika honek ikasleen arreta sustatzen du.

Jardueraz zatirik bereizgarriena bukaeraz "grafika efimeroen" tailerra da. Ordu-arte ikusitako materialak haien eskuz ukitu eta sentitzeko aukera izango dute, adierazpen berriak sortzekeo aukeraz. Garai bateko langileekin lotura sortuz eta historia eta gure kulturaz interesa bultzatuz.

JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOA

Jarduera honek gazteen arteko elkar lana eta komunikazioa bultzatzen du. Alde batetik, elkar lana, ordu-arte ikasitakoa kontuan hartuz interbentzio berri bat sortzeko aukera izanez. Bestalde, haien arteko harremana sustatzea da helburua baina ez soilik hitzez-hitzezkoa,



hizkuntza plastikoak gure arteko harremanak alda ditzake, materialak baliatuz komunikazio mota berriak sortzeko aukera izango dute, talde lanean arituz.

Lantzeko beste gai bat natura da. Lehen aipatu bezala, basoan egindako interbentzioa guztiz efimeroa eta jasangarria da ingurunearentzat. Prozesu honetan, basoa eta naturaz duten ikuspuntua alda dezakete eta beste harreman bat sortu ingurunearekin. "Grafika efimeroekin" batera naturarekin harreman estuagoa sortzeaz gain ingurune naturalean sorkuntza prozesua ematen da baina aldi berean efimerotasunak ikasleak haien artelanetatik aldentzera derrigortzen ditu lurrunen prozesu naturaletara hurbilduz.

Aipatzekoa da, museotik guztizko politika inklusiboa jarraitzen dugula. Bai ibilaldietan zehar eta baita tailerretan ere, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen gara. Honekin batera, generoen arteko desparekotasunaz jabetza osoa dugu eta arretaz begiratzen ditugu horrelako egoerak.

Prezioa: 175€ gehi BEZ

EHUNGINTZA TAILERRA



Ikasleek ideia orokor bat izan dezaten, jarduera bideo batekin hasiko da, non ehungintza eta tapizen garapena eta historiari buruz hitz egingo zaien

Jarduerarekin jarraitzeko, ehungintza edo tapiza tailerra hasiko da, eta ikasleek haien tapiza kolektiboak gauzatzeko aukera izango dute. Ekintza hau material berrerabiliekin burutuko da, museoak duen naturarekiko harreman jasangarria helaraziz. Hortaz gain, jarduera honen muinean dauden beste ideia batzuk ere jorratuko dituzte; besteak beste, sormena eta elkarlana.

JARDUEREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALA

Tapiza bat egitea ehungintza eta behar den estruktural lantzea da, irudiak sortu eta ulertzeko beste era bat. Jarduera honen bidez, askotan lantzen ez den ehuntzea, jostea eta ariak eta lokarriak mendeetan zehar izan eta duen garrantzia eta balioa. Nola kokatzen den gure tradizioan eta Europako mito zaharretan.

Gainera, ariketa hauek era kolektiboan gauzatu daitezkeenez, gazteek hizkuntza artistiko batez komunikatzeko bidea aurkitu beharko dute, haien artean komuna dena.

Bestalde, aipatu bezala naturarekiko errespetuzko jarrera bat ereiteko, natura inspirazio iturri izateaz gain, tapizaren parte izan daiteke materialaren bidez, edota objektu-artistikoaren kokaleku izanda, bien arteko harreman dialektiko bat ezarriz. Horregatik izango da beharrezkoa materialen berrerabiltzea.



JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOARI BURUZKO TXOSTENA

Esperientzia eta lan autonomo zein talde lanaren bidez ariketa praktiko honetan gai ezberdinetako edukiak barneratuko dituzte. Ariketa hauetan museoaren printzipioei jarraituz, material berrerabiliez baliatuko dira, naturarekiko harreman orekatsu eta jasangarri bat bultzatzeko.

Metodologia berri honekin ikasleen jakin-mina eta motibazioa handituko da, eta funtsezkoak izango dira parte hartzea, lankidetzeta eta haien arteko komunikazioa, beharrezkoa izango bai dute elkar lana eta adostasuna alde estetikoak jorratzeko guztion arte. Horregatik, tentu berezia izango dugu ikasle guztiak eroso sentitu daitezen, eta inklusibotasunetik eta berdintasunetik lan egingo dugu. Aipatzekoa da, museotik guztizko politika inklusiboak jarraitzen dugula. Bai ibilaldietan zehar eta baita tailerretan ere, ikasle guztien erosotasuna eta parte hartzea bermatzen saiatzen gara. Honekin batera, generoen arteko desperekotasunaz jabetza osoa dugu eta arretaz begiratzen ditugu horrelako egoerak.

Prezioa: 200€ gehi BEZ